



Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean

Parte hartzeko diagnostikorako oinarrizko
materialak

2016ko urtarrila

LABURPENA

Eztabaida publikorako ekarpenak

#elikatuVGalimenta

www.vitoria-gasteiz.org/vgalimenta

www.vitoria-gasteiz.org/elikatuvg



Centro
de Estudios Ambientales

CEA

Ingurugiro
Gaietarako Ikastegia

Laburpen hau honako dokumentutik atera da:

“Hacia una estrategia agroalimentaria sostenible para Vitoria-Gasteiz. Materiales básicos para un diagnóstico participativo”

Dokumentua GEA21 Grupo de Estudios y Alternativas enpresak landu zuen 2015eko martxoan Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren zuzendaritza eta ikuskaritzarekin

1. SARRERA: NEKAZARITZAKO ELIKAGAI-ESTRATEGIA JASANGARRI BATEN EGOKITASUNA ETA PREMIA	1
2. VITORIA-GASTEIZKO EGUNGO NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN PAISAIA	3
3. OINARRIZKO GALDERAK NEKAZARITZAKO ELIKAGAI-ESTRATEGIA BATI BEGIRA	7
3.1. 3.1. Zer ahalmen endogeno du gaur egun Vitoria-Gasteizko udalerrak tokiko produkzioa eta kontsumoa optimizatzeko?	7
3.2. Zer tarte daude jardun estrategikorako?	8
4. ONDORIOAK	14
4.1. Nekazaritzako elikagai-estrategia posible baten oinarrizko ardatzak	14
4.2. Aukerak eta zailtasunak strategiari begira	16

1. Sarrera: nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten egokitasuna eta premia

Gutxi gorabehera duela bost urtez geroztik hiri-jasangarritasunaren alorrean ikaragarri hazten ari da hirietako elikadurari lotutako eremua, izan ere, hiriak une honetan gizakien habitat nagusia baitira planeta-mailan. Alde batetik, energia-krisia eta klima-aldaketak eragin duen baliabide-galeraren gisako alderdiak batu egin dira gai hori hausnarketa teoriko eta estrategikoen lehen planoan kokatuz elikadura-krisia etiketarekin. Bestalde, hirien barnean eta inguruetan hiriko baratzeen eta mota guztietako nekazaritza-ekimenen bat-bateko ugaltzea, laguntzen ari da hiri-jasangarritasunaren ikuspuntutik plangintza-bektoreak sartu beharri buruzko kontzientzia handitzen, izan ere, bektore horiek landak hiriarekin izan duen aspaldiko harremana berreskuratzen eta nekazaritza-lurraldea eta landa-mundua, gizarte-antolaketa ororen euskarri biologiko gisa duten funtsezko zeregina dela medio, dagokien lehen planoan berriz ere kokatzen lagunduko baitute.

Hala eta guztiz ere, adierazi behar da hiriaren ikuspuntutik nekazaritzako elikagai-sistemari lotutako interesa gero eta handiagoa bada ere, lehen sektoreari eta landa-munduari lotutako arazo endemikoek bere horretan jarraitzen dute eta larriagotzen ari dira. Beraz, hirietako elikadura lehen sektorearen problematika bere osotasunean lehen planoan kokatu gabe aztertu nahi izanez gero, ez da deus ere lortuko.

Egiaztapen horrek, hain zuzen ere, hiriko nekazaritzako elikagai-sistemaren plangintza gainerako hiri- eta lurralde-jasangarritasuneko estrategiekin batera landu behar izatea dakar, estrategia horien artean lehen sektorearen jasangarritasuna funtsezkoa izanik.

Hiriek aurrez aurre duten erronka oso handia da eta esku-hartzeko maila desberdinen arteko harremana inola ere alde batera ez uztea eskatzen du, tokian tokikoari arreta eskainiz maila globala ulertuz eta alderantziz, baina zorionez mundu osoko hainbat hiritan ildo horretan egindako esperientzia asko daude dagoeneko, lurraldea planifikatzeko modu berri bat behin betiko finkatzen laguntzeko erreferentzia gisa baliagarriak izan daitezkeenak, lurralde horretan hiria eta landa berriz ere plano berean kokatuz, hirigintzaren hastapenetan halaxe egon baitziren.

Betidanik hiri- eta lurralde-jasangarritasunaren alde egin duen apustuaren zati gisa, Vitoria-Gasteizko hirian hainbat urte daramatzate bere nekazaritzako elikagai-sistemaren plangintzan lan egiten. Hainbat gizarte-erakundek hasitako lan kolektiboa da, zeinari udaleko hainbat sail eta herritarrak modu

partikularrean atxiki zaizkion, eta “Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagai-sistema jasangarriaren alde” adierazpenaren¹ idazkuntzarekin amaitu zen.

Ahalegin horiek azkenik ekimen instituzional bat ekarri zuten, eta horrela, udalaren osoko bilkurak, 2014ko martxoaren 28an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen Elikadurarako Udal Plan bat egitea interesatuta dauden eta nekazaritzako elikagai-estrategiarekin zerikusia duten herritar eta elkarteekin lankidetzan. Ekimen horretan bertan, Udal Gobernuari eskatu zioten udal jantokietan bertako elikagai zein elikagai ekologikoen kontsumoa susta zezala, eta udal jantokietako hurrengo hornidura-kontratuak esleitzeko baldintza-agirietan produktu horiek lehenesteko baldintzak ezar zitzala.

Estrategia horren barruan, beharrezkotzat jo zen Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagai-sistemaren egoerari buruzko aurretiako diagnostiko bat edukitzea, diagnostiko hori abiapuntutzat hartuz prozesu parte-hartzaile bat bultzatzeko. Horrela, 2015eko udaberrian, “Vitoria-Gasteizerako nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarri baten bidean. Parte hartzeko diagnostikorako oinarrizko materialak” dokumentuaren idazkuntza amaitu zen. Nekazaritzako elikagai-sektoreari dagokionez udalerrian dauden baldintzen alde zuzeneko azterketa bat egiten du, eta eztabaidatzeko eta diagnostiko parte-hartzaile bat lantzeko oinarrizko materiala izango da.

Dokumentu horretan, nekazaritzako elikagai-kateari eta sektorerako estrategia bat garatzeko alde zuzeneko baldintzei buruzko informazio orokorra biltzen duten hiru kapitulu daude. Kapitulu horietako lehenengoa strategiaren ikuspegi kontzeptual eta metodologikoari buruzkoa da; bigarrena, nekazaritzako elikagai-katearen oinarrizko elementuen deskribapena da; eta hirugarrenean, sistemaren esparru orokorra osatzen duten funtsezko elementuak identifikatzen dira. Laburpen hau Vitoria-Gasteizko kasu zehatzari lotuta dauden kapituluetan oinarritzen da: gure udalerriko nekazaritzako elementuen paisaiaren deskribapena, nekazaritzako elikagai-estrategia bati begira planteatzen zaizkigun oinarrizko galderak, eta ondorioen atal bat.

¹ <http://nekazaritzakoelikagaijasangarriak.blogspot.com.es/>

2. Vitoria-Gasteizko egungo nekazaritzako elikagaien paisaia

Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagaien paisaiaren deskribapen osatu bat lortzeko, nekazaritzako elikagai-katearen alderdi guztiak hartu dira kontuan. Eta atera den ondorio garrantzitsuenetako bat izan da egiaztatu dela lan hori egitea oso zaila dela **informazio zehatzik ez dagoelako**. Hainbat kasutan, udal-mailan banatutako daturik ez dago, eta beraz, goragoko lurralde-maila baten informazioan oinarrituz egin behar dira zenbatespenak, adibidez Eustatek egindako Familia Gastuen Estatistika EAEn. Beste zenbait kasutan, gure udalerriri buruzko benetako datuak egon badaude baina ez daude eguneratuta, adibidez 2009ko nekazaritza-errolak. Eta kasuren batean ere gertatu da iturri desberdinetatik datozen datuak desberdinak izatea, adibidez etxeguneetan egiten den elikagai-kontsumoari buruzkoak.

Vitoria-Gasteizko herritarren dietari eta elikadura-ohiturei dagokienez, adieraz dezakegu patataren, zerealen, esnearen eta esnekien kontsumoa nutrizio-gomendioetara egokitzen dela. Fruten, lekaleen eta barazkien kontsumoa gomendioetakoa baino pixka bat txikiagoa da. Eta haragi- eta arrain-kontsumoa aipatu gomendioetakoa baino handiagoa da.

Produkzioari dagokionez, Vitoria-Gasteizko 2009ko nekazaritza-errolaren datuek adierazten dute udalerriko azaleraren % 43 nekazaritza-lurrak direla eta 320 nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategi daudela. Beraz, **batez ere nekazaritza-lurraldea** da, 1989az geroztik nekazaritza azaleraren % 25a galdu den eta denbora-tarte berean ustiategien kopurua % 41 jaitsi den arren.

Labore nagusia zerealak dira, landutako azaleraren % 73a ordezkatzuz, eta ondoren labore industrialak daude, guztizkoaren % 8a izanik. Udalerrian **produkzioaren eta kontsumoaren artean dagoen desorekaren** adibide garbia da datu hori.

Nekazaritza ekologikoaren metodoekin landatutako azalera, guztira landatutakoaren % 0,6 besterik ez da. Azalera horren % 70 zerealak eta bazka landatzera eta ongarri berdea eta/edo lugorrira bideratzen da. Gainerako % 30ean barazkiak, lekaleak eta batez ere patatak landatzen dira.

Vitoria-Gasteizen, elikadura-produktuak prozesatu, landu eta fabrikatzen dituzten 73 establezimendu daude, eta Euskal Autonomia Erkidego osoaren % 5a besterik ez dute ordezkatzeko. Transformazio-establezimenduek beren kopuruari dagokionez duten garrantzi txikia argi geratzen da biztanle kopuruarekiko duten proportzio txikia eta establezimendu horiek ekonomia-jardueren guztizkoarekiko duten portzentaje txikia direla medio.

Azpimarratu beharrekoa da ez dagoela errotaritzan eta azukre-fabrikazioan diharduen establezimendu bakar bat ere, eta hori nekez justifika daiteke udalerrian kantitate handitan produzitzen diren lehengaiak erabiltzen dituzten jarduerak direlako. Horrelako establezimendurik ez egotearen arrazoietako bat, azken urteetan sektore horietan egin den kontzentrazio-prozesu handia izango litzateke. Esan daiteke, beraz, aipatu den **produkzioaren desoreka** ez dela soilik **kontsumoarekiko** gertatzen, **transformazio-sektorearekiko ere** gertatzen baita.

Ez dago elikagaien banaketari buruzko datu espezifikorik: udalerrian kontsumitzen diren elikagaiak nola eta nondik datozen. Azterketa hau egiteko material-fluxuaren datuetara jo dugu, zehazki material biotikoen datuetara, hor baitaude bilduta nekazaritzan, basogintzan, ehizan eta arrantzan sortzen diren fluxuak. Material biotikoen fluxuen azterketak islatzen du Vitoria-Gasteizen erauzten den tona bakoitzeko 2,2 tona material biotiko inportatzen direla, horietatik % 26,5a munduko gainerako herrietatik eta % 73,5a estatutik etorritz.

Merkaturatze-etapari dagokionez, adierazi behar da Vitoria-Gasteizko nekazaritza- eta abeltzaintza-produkzio nagusien jomuga operadore pribatuei eta kooperatibei saltzea dela, eta hildako animalien eta jasotako pataten zati esanguratsu bat transformazio-industriari saltzen zaiola. Aitzitik, barazkiak, frutak eta arrautzak ia osorik autokontsumora bideratzen dira ustiategiaren bertan. Datu horiek, zerealak lehen sektorean duen garrantzi handiaren datuarekin batera, gure udalerriko egungo nekazaritza **industria- eta nekazaritza-eredu** batekin nabarmen bat datorrela adierazten duen ideia indartzen dute.

Udal-mailako daturik ezean, esan daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko etxeguneen % 70ek baino gehiagok elikagaiak hipermerkatu, supermerkatu, autozerbitzu eta beherapen-establezimenduetan erosten dituztela. Ehuneko hori % 60ra jaisten da elikagai freskoen kasuan. Vitoria-Gasteizen, 254 handizkako establezimendu daude, hau da, establezimendu bat 950 biztanle bakoitzeko, eta bestalde, 2.241 txikizkako saltoki daude, hau da, saltoki bat 108 biztanle bakoitzeko. Gainera, banaketa alternatiboko edo ez-konbentzionaleko bideen nolabaiteko eskaintza ere badago elikagaiak eta edariak erosteko (auzoetako azokak, kontsumitzaile-elkartek, kontsumo-taldeak, asteroko erosketa-saskiak, zuzeneko salmenta).

Elikagai-sektorearen barneko inportazio- eta esportazio-fluxuei dagokienez, ez daukagu Vitoria-Gasteizerako edo Arabarako bereizitako daturik. Euskal Autonomia Erkidego osoari dagozkion datuek esportazioaren aldeko balantze positiboa azaltzen dute, baina gure kasuan ez litzateke aplikatzekoa izango

animaliak elikatzeko produktuen, kontserbako, landutako eta izoztutako arrainen eta edari alkoholduen ondorio delako.

Azpimarratu behar da espainiar estatuko, Europar Batasuneko eta mundu osoko inportazioak nagusi direla finantza-fluxuei dagokienez elikadura-sektorearen barruan, lurraldearen gainerako zatian bezala.

2013an Vitoria-Gasteizerako kalkulaturako elikadura- eta edari-gastua 483 milioi euro da, guztizko gastuaren % 14,6, hain zuzen ere. Gastu nagusia elikadura-produktuen erosketari dago lotuta, etxeguneetako guztizko gastuaren % 13,5 izanik. 2013an edarietan egindako batez besteko gastua 160€ pertsonako izan zen, guztizko gastuaren % 1,1.

Atal garrantzitsuetako bat elikagaien kudeaketa publikoarena da. Gizarte Gaien eta Adinekoen Saila da elikagai-banatzailer nagusia udalaren erakunde publikoetan. San Prudentzio Adinekoei Laguntzeko Zentro Integraleko (ALZI) sukaldea arduratzen da sailak arreta eskaintzen dien pertsonentzako janari prestatuak egin eta banatzeaz. Herritarrentzako Zerbitzuen eta Kirolen Sailak ere otordu-zerbitzuak eskaintzen ditu bost haur-eskolatan, udalekuetako bitan eta sukalde-tailerretan.

Vitoria-Gasteizen urtero 1.100.000 zerbitzu inguru hornitzen dira, batez ere bazkariak eta afariak, baina zentro batzuetan gosariak, hamaiketakoak eta meriendak emateko zerbitzuak ere badira. Hornidura-zentro nagusia San Prudentzioko ALZiko sukaldea da. Elikagai-eskuraketa 27 lote edo elikagai-talde esleitzeko lehiaketa publiko bidez egiten da, eta haien jatorria, beraz, askotarikoa da, % 20 inguru bidezko merkataritzatik etorritik. Kontsumo-zentroetara egin behar den elikagaien garraioa ere lehiaketa publiko bidez esleitzen da. Haur-eskoletako jantokietan jatorri ekologikoko elikagaiak hornitzen dira, eta Gumendi da hornitzailea.

Ondoren, **laburpen-taula** bat aurkezten da, eta datu eguneraturik ez duten alderdiak identifikatzeko aukera ematen du; era berean, benetako datuak lortzeko zailtasunak edo ia daturik ezak eskura dauden datuak oinarritzat hartuz zenbatespenak eta estrapolazioak egitera behartzen duten alderdiak identifikatzeko aukera ere ematen du.

ALDAGAI MOTA	BALIOA	DATA ETA DATU MOTA	JATORRIKO ITURRIA ETA EREMUA
Elikagai- eta edari-kontsumoa etxeguneetan, jatetxeetan eta erakundeetan	2.250,21 gramo biztanleko eta eguneko	2006-2010 Zenbatespena	EAEko familien gastuari buruzko estatistika. EUSTAT. 2012. Araba
Landutako azalera (lugarria barne)	11.081,70 hektarea	2014 Benetako datua	Arabako Foru Aldundia Vitoria-Gasteiz
Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiak	320	2009 Benetako datua	Nekazaritza Erroldak. EUSTAT Vitoria-Gasteiz
Nekazaritza ekologikoaren azalera	63,41 hektarea	2013 Benetako datua	ENEK Vitoria-Gasteiz
Abeltzaintzako unitateak	8.499	2009 Benetako datua	Nekazaritza Erroldak. EUSTAT Vitoria-Gasteiz
Elikadura-produktuak prozesatu, landu eta fabrikatzeko establezimenduak (kop)	73	2009 Benetako datua	CNAE-2009. Eustat
Elikagai-transformazioko jardueren udalerriko ekonomia-jardueren guztizkoarekiko duten portzentajea	% 0,4	2009 Benetako datua	CNAE-2009. Eustat
Etxeguneen erosketalekua	Hipermerkatuak: % 22,3 Super eta autozerbitzuak: % 35,4 Beherapen-establez.: % 14,4 Saltoki espezializ.: % 21,7 Gainerako bideak: % 6,2	2013 Zenbatespena	EAEko kontsumo handiaren joerak: bideen eta entseinen eragina. IKUSMER Euskal Autonomia Erkidegoa
Elikagai- eta edari-establezimenduak	Handizkakoak: 254 Txikizkakoak: 2.241	2014 Benetako datua	Elikagai- eta edari-merkataritzarako establezimenduak CNAE-2009ren arabera. EUSTAT Vitoria-Gasteiz
Nekazaritzaren materialen fluxua	Nekazaritzaren material-premia guztira: 698.143 Tm.	2011 Zenbatespena	EAEko materialen fluxua 2005-2011. EUSTAT Euskal Autonomia Erkidegoa
Elikaduran egindako batez besteko gastua	1.995€ pertsonako	2013 Zenbatespena	Batez besteko elikadura- eta edari-gastua EAEn, gastu-multzo bakoitzeko (COICOP, 3 digitu). Euskal Autonomia Erkidegoa
Balio erantsi gordina jarduera-sektoreen arabera. Eguneko prezioak	Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza: 12.368.000€ Elikagaien eta tabakoen industriak. 35.655.000€	2010 Benetako datua	Balio erantsi gordina (BEG) jarduera-sektoreen arabera (a38) (euro). 2010 EUSTAT Vitoria-Gasteiz

1. taula. Vitoria-Gasteizko egungo elikadura-paisaia: Laburpen-eta

3. Oinarrizko galderak nekazaritzako elikagai-estrategia bati begira

3.1. 3.1. Zer ahalmen endogeno du gaur egun Vitoria-Gasteizko udalerrriak tokiko produkzioa eta kontsumoa optimizatzen?

Udalerrri batek bere biztanleen premiak asetzeko beharrezko elikadura-produktuak hornitzeko duen ahalmena zenbatesteko, hainbat alderdi hartu behar dira kontuan: bere dieta, nekazaritza- eta abeltzaintza-azaleraren erabilgarritasuna, nekazariena eta abeltzainena, lurzorua eta klimaren ezaugarriak, laboreen denborazkotasuna eta haien etekinak, edo nekazaritza- eta abeltzaintza-produktuen transformazio-ahalmena, halakorik behar badute. Zenbatespen honetan dietari edo kontsumitutako elikagaiei, nekazaritza- eta abeltzaintza-azalerari, labore nagusien etekinei eta abelburuei lotutako alderdiak bakarrik hartu dira kontuan. Udalak elikagai-premiak hornitzeko duen ahalmena ere zenbatetsi da, baita Arabako Lurralde Historiko osoa kontuan hartzen duen hornidura-ahalmena ere.

Produktuak	Vitoria-Gasteiz %	Araba %
Zerealak	100	100
Patatak	100	100
Barazkiak	3,9	33
Azukrea eta deribatuak	100	100
Esnea eta esnekiak	10	100
Behi-haragia	18	100
Ardi- eta ahuntz-haragia	2,2	82
Txerri-haragia	21	100

2. taula. Vitoria-Gasteizko eta Arabako nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreak autohornitzeko duen ahalmenaren zenbatespena

Datuek agerian uzten dute udal-nekazaritzak biztanleak produktu jakin batzuek (zerealak, patatak eta azukrea eta deribatuak) hornitzeko ahalmen handia duela, baita baratze-, esne- eta haragi-produktuetan **autosufizientziara iristeko ezintasuna** ere. Lehen ideiak berriro azpimarratzen du soberako produktuen **transformazio-establezimendurik ezak** katearen konplexutasunean dakarren inpaktua.

3.2. Zer tarte daude jardun estrategikorako?

Vitoria-Gasteizko udalerrriak autohornitzeko duen ahalmen endogenoa gutxienez ere magnitudeen ordenari dagokionez ezarri ondoren, orain auzia da ahalmen hori ahalik eta gehien aprobetxatzeko aukerak zeintzuk diren eta ahalmen hori zabaltzeko tarterik ba ote dagoen erabakitzea, betiere jasangarritasun-irizpideak kontuan izanik.

Honako oinarrizko galdera hauek planteatzen dira:

- Kontsumo-presioa murriztu al daiteke dietan eta ohituretan egindako aldaketen bitartez?
- Nekazaritza- eta abeltzaintza-azalera zabaldu al daiteke esku-hartzeko eskala zabaldu gabe, hau da, toki-eskalaren barruan jarraituz?
- Zer tarte dago nekazaritza- eta abeltzaintza-katea aldatzeko, fase guztiak toki-eskalara gehiago hurbiltzeko xedez?
- Zer tarte dago nekazaritzako elikagai-praktika konbentzionaletatik nekazaritzako elikagai-praktika ekologikoetara igarotzeko?

Galdera horiei jarduteko tarteak dituzten sektoreko hainbat alderditan erantzuten zaie.

Dieta-aldaketa posible bati buruz hitz egiteko, elikagai-irenstearen egungo ezaugarriak jakin behar dira. Esan daiteke euskal dieta mediterraneokora hurbiltzen dela, baina osasunaren ikuspuntutik konparatuta hainbat abantaila dituela arrain, barazki eta ardo beltz gehiago kontsumitzearen ondorioz. Elikadura-jarraibideek eskala globalean sortzen duten ingurumen-inpaktua ere kontuan izan behar da. Alderdi horri dagokionez, adostasun handia dago herrialde garatuenetan nagusi diren dieten jasangarritasunik ezari dagokionez. Datu esanguratsu gisa, egiaztatu da ikuspegi nutrizionaletik orekatua den baina animalia-jatorriko proteinetan oinarritzen den menu batek era berean orekatua den baina landare-jatorriko proteinetan oinarritzen den beste menu batek baino inpaktu bi aldiz eta erdi handiagoa duela aztarna ekologikoari dagokionez.

Ikuspuntu estrategikotik honako ondorio hau atera daiteke: **abiapuntuko datu egokiak izanda** (horietako lehenengoa izango litzateke Vitoria-Gasteizen kasurako dietaren osagai bakoitzera gaur egun eta per capita bideratutako metro karratuen benetako identifikazioa lortzea), benetan **jardun-eremu zabala** dago tokiko autohornidura-mailak handitzeko **elikadura-dietaren ikuspuntutik**, kaloria-irenste orekatua eta osasungarriari eusteko, tokiko autohornidurarako ahalmena handitzeko eta baliabide globalen gaineko

presioa murrizteko helburu hirukoitzari aldi berean arreta ematen dioten aldaketak sustatuz dietan.

Ikusi dugunez, nekazaritza-laboreen eta abeltzaintza-produkzioaren egungo banaketak oso egoera heterogeneoa du Vitoria-Gasteizen autohornidurarako ahalmenari dagokionez. Horrek, elkarren artean bateraezinak ez diren hainbat esku-hartzerako aukera eskaintzen ditu, alde batetik soberako laboreen lurzoru-erabilera gutxiegi dauden laboreetara aldatzean eta, bestetik, merkatuaren berregituraketan oinarritzen direnak, soberako laboreekin lortutako diru-sarrerak gutxiegi dauden produktuen erosketetara zuzenean bideratzeko, prozesu horretan nekazaritzako elikagai-sistemaren jasangarritasun-helburuei lotutako baldintzak ezarriz, hau da, motxila ekologiko txikiagoa duten merkatu globaleko eskuraketak sustatuz.

Autohorniduraren ikuspuntutik, udal-mugarte baten barruan laboreetara eta abeltzaintzara bideratutako azalera zabaltzea da zuzeneko estrategiarik nabarmenena, eta aldi berean espazio-muga saihestezinei berez lotuena dagoena. Vitoria-Gasteizen kasuan, **alderdi honetan dauden tarteak nahiko txikiak dira**, nekazaritza-errolatik ateratako azalera-datuek, Nekazaritza Politika Erkidearen deklarazioek edota indarrean dagoen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrari lotutako datuek adierazten duten bezala.

Egungo nekazaritza-lurzorua zaintzera, prozesu urbanizatzaileak hasiera batean fagozitatutako eta azkenean garatu gabeko lurzorua berreskuratzea eta, azkenik, naturguneen babesa nekazaritza-erabilerekin bateragarri egitera bideratutako estrategiez gain, autokontsumo-azalera **hiri-inguruko eta hiriko nekazaritzaren** bitartez zabaltzeko aukerak ere aipatu behar dira. Baina kuantitatiboki, azalera horrek soilik zeregin osagarria eta bigarren mailakoa bete dezake autohornidura lehentasunezko helburu gisa jartzen duen nekazaritzako elikagai-estrategia baten barruan. Hala eta guztiz ere, batez ere nekazaritza ekologikoko produkziara eta kontsumora bideratutako estrategia baten barruan zeregin interesgarria bete dezake, ikusgarritasun eta hurbiltasun handiak eta, beraz, adibide izateko ahalmen handia dituelako. Era berean, balizko baratze-azalera oso garrantzitsua da azpiegitura berdearen eta zerbitzu ekosistemikoen zati gisa.

Atal honetan, oso garrantzitsuak dira **hutsik dauden udal-jabetzako lurzatiak**, hiri-nekazaritzarako aukera-guneak izan daitezkeelako.

Kontuan izanik nekazaritza ekologikoko praktiketara bideratutako lurren egungo portzentajea soilik % 0,6 dela, esan daiteke gai horri dagokionez epe labur eta ertainean dagoen jardun-eremua oso handia dela. **Udal-jabetzako landa-finkak** nekazaritza ekologikoko praktikak martxan jartzeko gune potentzialetako bat dira. Nekazaritza-lur hori gutxi gorabehera 300 hektarea dira, eta lehen sektorean jarduera profesional bat hasi nahi duten pertsonei

formula egokiren baten bitartez lagatzeko aukera egongo litzateke, betiere ezinbesteko baldintza izanik modu ekologikoan lan egitea.

Erregai fosilen kontsumoa eta ingurumen-inpaktuak, bereziki Negutegi Eftuko Gasen emisioei eta lurzoruen eta lurrazpien kutsadurari lotuta, murrizteko ahalmenari dagokionez, inolako zalantzarik gabe eraldatzeko ahalmenik handienetakoa duen bektorea da hori, eta beraz, nekazaritzako elikagai-estrategiaren lehentasunezko helburuetako bat izan beharko luke.

Produktzio intentsibo ekologikoaren aldeko apustuak epe labur-ertainean talka egiten du era berean garrantzitsua den beste alderdi batekin, hala nola, lurzoruen produktibitatearekin. Nekazaritza ekologikoak kuantitatiboki duen (ez kualitatiboki, ordea) produktibitate txikiak irekita dagoen eztabaidagai izaten jarraitzen badu ere, duela gutxi egin diren hainbat azterlanek adierazi dute errendimenduan dagoen aldea % 25 ingurukoa dela oro har.

Elikagai-hornidurarako eskualde-egitura optimoa ezartzea funtsezko alderdietako bat da strategiaren ikuspuntutik, baina formula orokorrik ezarri ezin den alderdi bat da. Produktzio-lekuaren eta kontsumo-lekuaren artean 100 km-ko gehieneko distantzia erreferentzia ona da elikadura-produktuen motxila energetikoa “elikadura-kilometrotan” murriztera bideratutako jasangarritasun-irizpide gisa.

Vitoria-Gasteizen kasuan, hirigunearen inguruan 100 km-ko gehieneko erradioko zirkulu bat marratuta ateratzen den eskualde-egiturak Euskal Autonomia Erkidegoa osorik eta Errioxa, Nafarroa, Kantabria eta Burgosko eskualde mugakideak hartzen ditu barnean.

Produktzioari dagokionez, helburua izango litzateke **bertako kontsumora bideratutako tokiko produktioa handitzeari lehentasuna ematea**, eta ondoren hurbiltasuneko 100 km-ko erradioaren barnera bideratutako produktioari, tokiko eta hurbileko eskalan xurgatu ezin den soberako produktioa kontsumo globalerako utziz.

Vitoria-Gasteizko udal-mugarteak autohornidurarako duen ahalmena egiaztatzeke egin ditugun kalkulu horietarako lehen hurbilketek, ordea, gomendatzen dute eskala hori lehen fase honetan bertan zabaltzea tokiko ingurunearen eta hurbileko ingurunearen arteko trantsizio-eremura, hau da, Arabako Lautada osora. Egiaztapen horrek aurrez aurre jartzen du **udal-instantzien eta goragoko lurralde-eskalari lotutako artean koordinatzeko** modua hasieratik bilatu beharra. Eta, edonola ere, hemen aurkeztutako argumentazioak ere gomendatzen du strategiaren diseinuan bertan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskalako beste estrategia batzuekin etorkizunean lotzeko aukera bultzatzen eta errazten duten bektoreak sartzea, baita 100 kilometroko hornidurarako eskualde-egituraren hasierako identifikazioa ere.

Jardun-eremu garrantzitsuenetako bat, produktuak bere jatorrizko fasetik kontsumo- eta baztertze-faseetaraino jasaten dituen prozesu guzti-guztietan erabiltzen diren baliabideen erabilera (energetikoak eta materialak) da, baita mota guztietako hondakin eta emisioen sorkuntza ere, horietako asko negutegi efektuari zuzenean lotuta egonik.

Nekazaritzako elikagai-estrategia jasangarriaren ikuspuntutik, lehentasunezko helburua motxila ekologikoa ahalik eta gehien murriztea da, erabilitako baliabideak termino absolututan murrizteko nahiz nahitaez erabili behar diren baliabideen erabileran ahalik eta efikaziarik handiena lortzeko baliagarriak izango diren neurriak abian jarriz. Inplikaturako insumoak eta emisioak modu zehatzean kuantifikatzea ahalbidetzen duten **toki-eskalako datu espezifikorik ez dagoenez** datu orokorrekin lan egin behar da.

Vitoria-Gasteizen kasuan, egiaztatu da ezkutuko material-fluxuak nabarmen handiagoak direla inportazioentzat etxeko erauzketentzat baino, eta alde nabarmen horren arrazoia batez ere inportatutako produktuak garraiatu egin beharra da. Datu horien arabera, elikadura-motxila murrizteko estrategiarik onena **hurbiltasun-zirkuituen sustapena** dela dioen ideia da, eta alderdi hori hurrengo atalean aztertuko dugu.

Lehen sektoreko energia-kontsumoari dagokionez, Energiaren Euskal Erakundearen datuek adierazten dute sektoreak egindako azken energia-kontsumoa nabarmen jaitsi dela 2006. urtetik aurrera, Arabako Lurraldeko bereizitako daturik ez dagoen arren. Energia-kontsumoaren jaitsiera jasangarritasun orokorrari dagokionez berez alderdi positiboa bada ere, krisi globalari zuzenean lotutako osaera koiuntural garrantzitsua du inolako zalantzarik gabe, eta beraz pentsa daiteke alderdi horretan tarte handia dagoela kontsumoa termino absolututan murriztera eta, beraz, kontsumoaren ondoriozko negutegi-efektuko gas-emisioak murriztera bideratutako jardunak egiteko. Puntu horri lotutako neurriak **kontserbazio-nekazaritzak** proposatzen dituen neurritan taldekatu daitezke.

Nekazaritzako elikagai-kate osoan zehar elikagaiak alferrik galtzea, inolako zalantzarik gabe, alderdi deigarrienetakoa da, baita maila guztietan kezkarik handienetakoa sortzen ari dena ere. Vitoria-Gasteizen toki-estrategiari begira bereziki interesgarriak dira autonomia-erkidegoei buruzko zifrak, izan ere, zifra horien arabera Euskal Autonomia Erkidegoa, eskuratutako elikagaien guttizkoaren gainean saihesteko moduko % 7,71ko hondakinak sortzen dituena, saihesteko moduko hondakin gehien sortzen dituzten erkidegoen zerrendan hirugarren tokian dago.

Jardun-eremuei dagokienez kontuan izan behar den azken alderdi bat zirkuitu laburrak eta hurbilekoak sortzea eta tokiko transformazio-jarduerak sustatzea da. Nekazaritzako elikagai-sistemaren inpaktu ekologikoan eragina duten

aldagai guztien artetik garraioa da azpimarragarriena, inolako zalantzarik gabe. Magnitude-ordenei dagokienez, esan daiteke produkzio-prozesuko energia-kontsumoa bosten bat dela, eta gainerako lau zatiak elikagaien prozesatzearen, paketatzearen, prestakuntzaren, merkaturatzearen eta, batez ere, garraioaren energia-gastuari dagozkiola.

Eta okerrera doan arazoa da, izan ere, *Análisis del coste ambiental de las importaciones de alimentos en el estado español 1995-2007*², txostenak dioen bezala, *“inportatutako elikagaien bolumena etxeguneetan kontsumitutako elikagai kantitatearen oso gaineratik handitu da”*, eta horrek *“Espainiako ekonomiaren elikagaiekiko mendetasunaren igoera handia”* islatzen du. Ondorioz, txosten horren arabera, *“bolumenaren eta NEG emisioen igoera honek estatuko nekazaritzako elikagai-ereduaren jasangarritasunik ezaren mailan aurrerapen argia dakar”*.

Datu-multzo horrek adierazten du inportazioek nagusi izaten jarraitzen dutela eta, beraz, **elikadura-kilometroak murriztera bideratutako estrategia espezifikoak artikulatzeko oso tarte zabala dagoela**, eta hori lortzeko hurbiltasun-zirkuituak sustatuko dira, bertako kontsumora bideratutako tokiko produkzioaren portzentajea handitzeko ahalegina eginez, eta era berean produktorea kontsumitzailearengana ahalik eta gehien hurbilduko duten zuzeneko zirkuituak sustatuko dira.

Jakina, egindako distantziak murrizteko estrategia horiek garraioak energia-kontsumoaren eta emisio kutsatzaileen alorrean duen inpaktua zuzenean murriztera bideratutako beste estrategia batzuekin osatu behar da, garraioaren energia-efizientzia hobetuz, baita energia-produkzioko katea hobetuz eta banaketa modala aldatuz ere.

Zirkuitu laburrei, hau da, produktorearen eta kontsumitzailearen arteko bitartekari kopururik txikienean oinarritzen diren zirkuituei dagokienez, hurbileko zirkuituekin zuzenean erlazionatuta dagoen baina noizean behin bat ez datorren estrategia bat da; bidezko merkataritzaren kasua da bat ez etortzearen adibideetako bat. Ildo horretan, nekazaritzako elikagai-estrategia sendo batek, ingurune globaletik datozen fluxu guztiak, zehazki toki-mailan nekez produzitu daitezkeen produktuak, bidezko merkataritzako modalitateen edo antzekoen bitartez estalita geratzeko joera izan beharko luke.

Zirkuitu laburrek eta hurbilekoek behar bezala funtzionatzeko, tokiko nekazaritzako elikagai-kate osatu bat egotea beharrezko baldintza da. Vitoria-Gasteizen kasuan, helburu hori lortzeko eragozpen nagusia **ia transformazio-**

² Xavier Simón Fernández, Damián Copena Rodríguez, David Pérez Neira, Manuel Delgado Cabeza, Marta Soler Montiel, *“Análisis del coste ambiental de las importaciones de alimentos en el estado español, 1995-2007”*

establezimendu bakar bat ere ez egotea da, bildu diren datuetatik ondoriozta daitekeenez.

Gabezia hori estaltzeko eta elikagai-transformazioaren sektorearen garrantzia handitzeko edozein estrategiak, **jardun-eremuak hainbat alderditan argi eta garbi identifikatzea dakar**: prozesua sustatu dezaketen balizko eragileak aurkitzea; katearen egungo funtzionamendua berriro artikulatzeko posibilitateak; erabilera aldatzeko posibilitateak dituzten eraikinak edo edukiontziak aurkitzea, jarduera horiek barnean hartzeko xedez; balizko kokaleku ezin hobeak eta hurbiltasun-helburuak eta abar bultzatzeko orubeak egotea. Nolanahi ere, abiapuntuko datuak lortzeari dagokionez gehien sakondu behar den alderdietako bat da hori, argi eta garbi.

4. Ondorioak

Ondoren ateratzen diren ondorioak, eztabaidatzeko eskainitako lan-materialaren barne daude, lortutako datuak oinarritzat hartuz egin daitezkeen balizko irakurketetako bat besterik ez baitira. Egingo den nekazaritzako elikagai-estrategian sartu beharreko neurri orokorren lehen proposamen bat da, baita egun dauden aukeren nahiz estrategia hori abian jartzeak topa ditzakeen oztopoen identifikazioa ere.

4.1. Nekazaritzako elikagai-estrategia posible baten oinarritzko ardatzak

Vitoria-Gasteizko nekazaritzako elikagai-estrategiaren kasuan ez da hutsetik abiatzen, sistemaren oinarrian bertan sortu den eta haren eragile konprometituenetako batzuek sustatu duten ekimena delako, eta beraz, "Vitoria-Gasteiz, nekazaritzako elikagai-sistema jasangarriaren alde" adierazpenean argi eta garbi adierazitako oinarritzko jarraibide batzuk badaude dagoeneko.

Laburbilduz, esan daiteke jarraibide horiek bereziki azpimarratzen diren bi ardatz nagusitan laburbildu daitezkeela:

- Nekazaritzako elikagai-sistema nekazaritza ekologikoko jardunetarantz eraldatzea.
- Tokiko autosufizientzia-maila handitzea, tokiko produkzioaren eta kontsumoaren arteko egokitasunaren handitze gisa ulertua.

Bi ardatz horietatik, Vitoria-Gasteizen testuinguruaren benetako egoerara birdoitutako helburu batzuk sortu beharko lirarteke, hau da, azken helburuen berregituraketa egitea egun dauden benetako jardun-eremuen arabera.

Ondoren aurkezten den taulan, tokiko aukerak aprobetxatzeko lehentasuna eman beharko zaien ekintza-ildoak zeintzuk izan daitezkeen adierazten da, oro har.

Neurri orokorrak	Jardun-eremua	Gomendio orokorrak
Dieta aldatzea	Ertaina	<ul style="list-style-type: none"> • Haragi-kontsumoaren murrizketari lehentasuna ematea • Bertako produktuen kontsumoa sustatzea
Laborantza eta abeltzaintza motak aldatzea	Ertaina	<ul style="list-style-type: none"> • Baratzeen eta frutarbolen azalera handitzea, soberako laboreen zati bat ordeztuz
Nekazaritza- eta abeltzaintza-azalera zabaltzea	Baxua	<ul style="list-style-type: none"> • Egungo nekazaritza-azalera erabilera-aldaketatik babestea • Hiriko eta hiri-inguruko inguruneak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea, lurzoru urbanizagarriaren desklasifikazioa eta lurzati eta orube publiko eta pribatuen abaguneko erabilera azpimarratuz • Egun dagoen azpiegitura berdeen sarea zabaltzea, bertan produkzio-erabilerak barne hartuz
Nekazaritza eta abeltzaintza ekologikora bideratutako azalera handitzea	Altua	<ul style="list-style-type: none"> • Egun dagoen oso jardun-eremu zabala ahalik eta gehien aprobetxatzea, nekazaritza ekologikoko praktikak sustatuz • Nekazaritza ekologikoko praktikak abian jartzea udal-jabetzako landa-finketan
Hornidurarako eskualde-egitura zabaltzea	Baxua	<ul style="list-style-type: none"> • Arabako azalera osoa Vitoria-Gasteizen Estrategiaren oinarritzko eskualde-egitura gisa barne hartzea • Eskualde-egitura Euskal Autonomia Erkidego osora eskualde-egitura ezin hobe gisa zabaltzeko premia azpimarratzea estrategiaren zati gisa • 100-150 km-ko eskualde-egitura baten muga 'organikoak' aztertzea
Baliabideen murrizketa eta horien erabilera eraginkorra egitea	Ertaina	<ul style="list-style-type: none"> • Pestizida kimikoen eta petroliotik deribatutako ongarrien erabilera murriztea • Elikagaien alferrik galtzea murriztea merkaturatze- eta kontsumo-etapetan
Zirkuitu laburrak eta hurbilekoak sortzea eta transformazio-jarduerak sustatzea	Ertaina	<ul style="list-style-type: none"> • Hurbileko zirkuituen sorkuntzan ñabardura jartzea • Munduko gainerako herrietatik datozen eta gutxiegi dauden produktuen inportazioak murriztea, estatukoei eta, bigarren maila batean, Europako gainerakoei lehentasuna emanez • Transformazio-jarduerak sustatzea

3. taula. Oinarritzko baldintzak Vitoria-Gasteizeko nekazaritzako elikagai-estrategia bati begira

Planteamendu orokor honetatik eratortzen diren neurri zehatzak abian jartzeko, nekazaritzako elikagai-katearen zati diren **agenteen inplikazioa eta ahalegin koordinatua** beharrezkoak izango dira.

Administrazioaren eta, bereziki, **Vitoria-Gasteizko Udalaren** zereginari dagokionez, jarduteko aukera izan dezakeen jardun-eremu espezifikoak honako hauek dira:

- **Hirigintza-plangintza** hainbat alderdiri dagokienez, hala nola: lan-lurzoruaren babesa, kargan sartu ez diren lurzoru urbanizagarriak beren jatorrizko landa-izaerara itzultzea, edo nekazaritzako elikagai-katearen fase desberdinei lotutako erabilerak kokatzea.

- **Elikagaien kudeaketa publikoa** udal-erakundeetan, bertakoa eta ekologikoa den produktuaren kontsumoa sustatuz.
- Osasungarriagoak diren eta tokiko produkzioaren erritmora egokitzen diren **elikagaiak kontsumitzeko ohiturak sustatzea**, ikasleekin egindako hezkuntzako jardueren bitartez eta jende guztiari oro har zuzendutako beste jarduera batzuen bitartez.
- **Udalaren landa-finkak aprobetxatzea** nekazaritza ekologikoko ekimenak martxan jartzeko.

4.2. Aukerak eta zailtasunak estrategiari begira

Aukera nagusiei dagokienez, horiek nagusiki bi alderditan laburbildu daitezke:

- Lehenengoa eta garrantzitsuena, nekazaritzako elikagai-estrategia bat jasangarritasun-irizpideekin martxan jartzeko ekimena **behetik gorantz** sortu izana, **gizarte zibil antolatuak** sentitzen duen eta adierazi duen premia bat bezala.
- Bigarren tokian, aukera-faktore gisa azpimarratzekoa da prozesua bultzatzeko dagoen **borondate politikoa**, bai toki-administrazioaren aldetik bai korporazioan dauden alderdi politiko guztien aldetik.

Aukeren atalean era berean aipatu behar dira jardun-esparru orokorrarekin zerikusia duten eta **testuinguru-aukera** gisa uler daitezkeen aukerak, horien artean honako hauek nabarmenduz:

- Vitoria-Gasteizen hiri- eta lurralde-mailan **plangintzarako kultura historikoa** egotea.
- Vitoria-Gasteizen herritarrek gai publikoetan **parte hartzeko dagoen kultura**.
- **Hiriak bere landa- eta natura-ingurunearekin duen lotura** estua.
- **Euskal Autonomia Erkidegoko kultura gastronomikoa**.
- Eskala globalean gero eta indar handiagoa hartzen ari den korrante orokor bat egotea **elikadura-burujabetzaren** alde.

Estrategiak aurrez aurre izango dituen **zailtasun** nagusiei dagokienez, honako alderdi hauetan laburbildu daitezke:

- Transformazio-, banaketa- eta merkaturatze-faseei dagokienez **datu xehaturik** edo bereizirik **ez izatea**.
- Estrategiaren **jardun-eskala ezin hobea** definitzea.

- Inplikaturako **aktoreen** eta sektoreen **artean** egon daitezkeen **interes-gatazkak edo -desadostasunak**.
- Administrazio desberdinen artean egon daitezkeen **eskumen-desadostasun eta -gatazkak**, baita administrazio bateko arlo, sail edo unitateen artean sor daitezkeenak ere.